

BERGARAKO 2030 AGENDAREN PLAN ESTRATEGIKO JASANGARRIA ADOSTEKO PROZESUA

HERRITARREN EKONOMIA ARLOARI BURUZKO MAHAIAREN 2. BILERA

Bertaratutako enberrak:

- Juanba Ayerbe (Enpresare + FEX elkarteak)
- Pello Txintxurreta (Metagra)
- Tecnosystem (Asier Agirrebeña)
- Leire Garmendia (Izadi 21 aholkularitza-taldea)

Bileraren hasiera-ordua: 18:00.

Udalak kontratatutako aholkularitza-enpresak “Bergara 2030 egin herrixa” prozesuaren baitan orain arte emandako urratsak azaldu ondoren, orain arteko mahaietan (udaleko gaikako batzordeetan nahiz herritarren gaikako mahaietan) jasotako ekarpenetan oinarrituz diseinatu berri duen Plan estrategikoaren 1.zirriborroa aurkeztu du eta ale bana banatu die gerturatutakoak.

Saioren lehen zatian ekonomia arloari lotutako gaiekin erlazioa duen helburu estrategikoa osatzen duten jarduera-programak aztertu eta lantzeko aukera ireki da. Honela, gerturatutakoak jarduera-lerro bakoitzaren baitan jasotako ekintzen inguruko ekarpenak egin dituzte eta horien artean eztabaidatzeko aukera izan dute.

Faltan bota dira lehen sektorearen eta hirugarren sektorearen ordezkariak. Lehen sektoreko ordezkariak beraien sektoreko ekarpenak lurraldeko mahaietan egin dituztela aipatu du aholkularitza taldeak eta Azokaren etorkizunari buruzko parte-hartze prozesuan parte hartzen ari direnez, Udalak ez dituela 2 prozesuetara gonbidatu (hala ere, azokari buruzko prozesuan eragile horiek egiten dituzten ekarpenak aintzat hartuko dira Plan Estrategiko Jasangarriaren diseinu-fasean). Bestetik, merkatarik eta ostalarien ordezkarien asistentzia falta adierazi da eta hauei akta gainean ekarpenak egiteko aukera emango zaiela adierazi du aholkularitza taldekoak.

Hauek dira planaren gainean jaso diren ekarpenak:

2. HELBURU ESTRATEGIKOA: Trantsizio sozioekologikoan oinarritutako garapen ekonomikoa bultzatzea, inklusiboa, berritzailea eta jasangarria, eta kalitatezko enplegu osoaren alde egitea

2.1. Jarduera programa: Lehen sektorea suspertzea, jarduera ekonomikoa kalitatearekin zein naturaren zaintzarekin uztartuz eta oreka lortuz.

2.1.1 ekintza: lehen sektorean aritu nahi dutenen lana errazteko neurriak ezarri, oztopoak zuzenduz eta baliabideak eskainiz:

2.1.2 ekintza: lurzoru pribatuaren egoeraren inguruko azterketa bat egitea, 1. sektoreko belaunaldi-arteko erreleboa bermatzeko eta elikadura-burujabetzara zuzendutako jardueretara bideratzeko:

2.1.3 ekintza: lur publikoen bankua sortzeko pausoak ematea bertara 1. sektoreari lotutako jarduera ekonomiko jasangarri ezberdinak garatzeko.

2.1.4 ekintza: basogintzari alternatiba jasangarri eta bideragarriak bilatzea:

2.1.5 ekintza: Oxirondo Azokaren ekintza-plana diseinatzea, azokaren berrantolaketa eta ikuspegi-aldaketa bultzatzeko.

2.1.6 ekintza: landa inguruarekiko ezagutza, errespetua eta zaintza sustatzeko sentsibilizazio-jarduerak burutzea.

Lehen sektorearen jarduna gakoa da herritarren ongizatean. Baserriak bizirauteko ezinbestekoa da hau profesionalizatzea eta horretarako prestakuntza eskaintzea: enpresa kudeaketan, marketinean, digitalizazioan, etab.

2.2. Jarduera programa: **Ekonomia zirkularrean oinarritutako bertako eredia sortzea eta abiaraztea (industria sektorean, hezkuntzaren arloan, bertako ekoizpenean eta ekoiztiko produktuen merkaturatzean).**

2.2.1 ekintza: bioaniztasunaren ikuspuntu ekonomikoa landu (ekosistemen zerbitzuak, etab.).

2.2.2 ekintza: ekonomia zirkularrari lotutako programa zehatzak eta gaikako jardunaldiak prestatu, eredu ezberdinak eta zereginak zehaztu eta bideratzeko.

Jarduera birformulatzea ondo legoke, ekonomia zirkularrera mugatu gabe, orohar ingurumenari eta klima aldaketaren aurrean hartu beharreko neurriekin lotzeko. Adibidez: "Klima larrialdiari loturiko industria bultzatu".

Aurreko ekintzei hau gehitzea ondo legoke: energian eta automozioan egongo den eraldaketa eta trantsizioari loturiko industriak garatzea. Udalerrriak eta eskualdeak teknologia aldetik duen indargunea eta sarea erabili beharko litzateke hau bultzatzeko.

2.3. Jarduera programa: **Begaran sortutako enpresen eta bertan garatutako proiektuen aldeko apustua egitea, lankidetzak publiko-pribatua sustatuz.**

2.3.1 Ekintza: kalitatezko prestakuntza-eskaintza bultzatu eta sentsibilizazio kanpainak aurrera eraman gai berritzaileen inguruan:

2.3.2 Ekintza: jarduera eta ekimen sozio-ekonomiko berriak/pilotuak sustatu eta partekatu, Begarak duen tradizio zientifikoa zein berritzailean oinarrituz:

Garrantzitsua da Udalak ekintzailtza sustatzeko horretan adituak diren eta esperientzia zabala duten erakunde edo eragileekin elkarlana bideratzea: BIC Gipuzkoak Arrasaten duen bulegoa (Saiolan), etab.

Bestetik, proiektu berrien lanketarako ezinbestekoa da prestakuntza-zentroekin ere lankidetzak guneak sortzea ekintzailtza zein proiektuen garapena bideratzeko. Miguel Altuna bezalako prestakuntza-guneak suspertu behar dira.

2.3.3 Ekintza: ekintzaile ezberdinen arteko elkarlana bultzatu eta baliabideak partekatu

2.3.4 Ekintza: logistika-sare kooperatiboak bultzatu.

2.3.3. eta 2.3.4. ekintzak zerikusi handiagoa dute 2.4. jarduera programarekin eta beraz, hor kokatuko lituzkete (aholkularitza teknikoak ontzat jotzen du proposamena).

2.4. Jarduera programa: **industria-sektorean diharduten enpresak indartzeko eta elkarren arteko sarea sendotzeko baliabideak eskaintzea.**

2.4.1 Ekintza: enpresen barne-ekintzailtza bultzatu enpresen dibertsifikazio proiektuak sustatuz eta lagunduz.

Ekintza hau 2.3. jarduera programan barne ikusten da.

2.4.2 Ekintza: Bergarako enpresak herritik ez joateko eta enpresek era berean Bergara kokaleku interesgarria izateko neurriak hartu

1.1.6. ekintzari loturik egongo litzateke. Industria eremuak zaharberritzea eta enpresentzako errentagarri izan daitezen lan egitea beharrezkoa da Bergara bertako zein kanpoko enpresentzat kokaleku interesgarria bihurtu dadin eta logistikarako erraztasunak topatu ditzaten.

2.4.3 Ekintza: enpresan jarduerak atzerriratzeko baliabideak bultzatu.

Askotan ez da atzerriratu beharrik izaten, nahikoa litzateke bertako merkatutik haratago begiratu eta inguruko eta estatuko beste eremuetara zabaltzea, ezezaguna den horri beldurra galduz. Enpresa txiki eta ertainei bultzada bat eman behar zaie zentzu horretan.

2.4.4 Ekintza: ENPRESARE eta FEX bezalako ekimenen zereginak babestu eta indartu, sinergia ezberdinen baturan lan egiteko.

Ez da FEDEX, FEX baizik.

Eragile ekonomiko ezberdinen elkarlan eta sinergien baturarako paper garrantzitsua betetzen dute.

2.5. Jarduera programa: **zerbitzuen sektorea babestea, bisitariak erakartzea, egoiliarak mantentzea, establezimenduen irudia hobetuz eta Bergarari giroa emanez.**

2.5.1 ekintza: Turismo plana abian jartzea.

2.5.2 ekintza: merkataritza Biziberritzeko Plan Berezia (PERCOa) egitaritu

2.5.3 ekintza: zerbitzu sektoreko lokalen legezkatzean pausuak ematea.

2.5.4 ekintza: hutsik dauden merkataritzarako lokalak erabil daitezen neurriak ezarri.

2.5.5 ekintza: merkataritzan eta ostalaritzan (digitaliazioa,...) zerbitzu profesional eta euskaldun bat lortzeko baliabideak eskaini.

Zerbitzu bereziak eskaini beharko lituzkete, espezializazioaren bila joan beharko lirateke bizirauteko. Gertutasuna beraien alde erabili beharko lukete.

2.5.6 ekintza: herritarren kontsumoa fidelizatzeko kanpainak antolatu.

Bertakoa erosteak suposatzen dituen abantailen inguruan pedagogia lan handia dago egiteko.

Saioaren bigarren zatiaren helburua gertuko etorkizunean ezinbesteko garrantzia izanik lehenetsi beharreko ekintzak identifikatzea izan da. **Hona hemen jarduera programa batzuetan (industria sektoreari loturikoak) lehenetsi diren ekintzak:**

2.2. Jarduera programa: **Ekonomia zirkularrean oinarritutako bertako eredia sortzea eta abiaraztea (industria sektorean, hezkuntzaren arloan, bertako ekoizpenean eta ekoiztutako produktuen merkaturatzean). BIRFORMULATURIK**

“Energian eta automozioan egongo den eraldaketa eta trantsizioari loturiko industriak garatzea”.. Aholkularitza-taldearen ustez, hobe litzateke ekintzaren izenburua mantentzea eta berdez eta kaketan artean jasotako esaldi ekintza aurrera eramateko jarduera moduan barneratzea.

2.3. Jarduera programa: **Bergaran sortutako enpresen eta bertan garatutako proiektuen aldeko apustua egitea, lankidetzak publiko-pribatua sustatuz.**

2.3.5 Ekintza: jarduera eta ekimen sozio-ekonomiko berriak/pilotuak sustatu eta partekatu, Bergarak duen tradizio zientifikoa zein berritzailean oinarrituz.

2.4. Jarduera programa: **industria-sektorean diharduten enpresak indartzeko eta elkarren arteko sarea sendotzeko baliabideak eskaintzea.**

2.4.5 Ekintza: Bergarako enpresak herritik ez joateko eta enpresek era berean Bergara kokaleku interesgarria izateko neurriak hartu

2.4.6 Ekintza: ENPRESARE eta FEX bezalako ekimenen zereginak babestu eta indartu, sinergia ezberdinen baturan lan egiteko.

Saioari amaiera eman aurretik, aholkularitza-enpresako kideek herritarrekin antolatuko den hurrengo saioa uda ondoren antolatuko den herri-batzarra izango dela aipatu dute. Udaran zehar Udalak Plan Estrategiko Jasangarria landuko duela eta udara ondoren herri-batzarrean planaren aurkezpena egingo dela adierazi dute.

Honenbestez, parte-hartze saioa 19:30etan amaitu da.